



**2017KO URRIAREN 24KO
OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko urriaren hogeita lauan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Begoña Bueno Barranco, Iñaki Estensoro Sarasola, Amagoia Naldaiz Mingo, Jaber Arrasate Aierbe, Ioseba Hernandez Madinabeitia, Marian Zufiria Apeztegia, Imanol Aran Barandiaran, Leire Mendia Arana eta Urtzi Iruin Arruti.

Bere ezin etorria adierazi du Azeari Andonegi Beristain zinegotziak.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2017ko irailaren 26an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.


Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- GURUTZEKO BIRRURBANIZAZIO PROIEKTUKO 4. FASEKO LANEN LEHEN OBRA EGIAZTAGIRIA.-

Gurutzeko birrurbanizazioa, 4. fasea, lanen obra zuzendaritza daramaten Pedro Izaskun arkitektoak eta Estibaliz Igartua arkitekta teknikoak, lehen obra egiaztatzea egin dute. Lehen obra egiaztatze honen zenbatekoa HIRUROGEITA BAT MILA ETA LAUROGEITA HEMERETZI EURO ETA BERROGEITA HEMEZORTZI ZENTIMO (61.099,58€) takoa da. Lanak, obra hau aurrera eramateko Iparragirre S.L., Orsa S.L. eta Iturrioz S.A.k osatutako A.E.B. ari da burutzen.

Udal arkitekta teknikoak obra-egiaztatze hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, hirigintza obra eta zerbitzuetako batzordearen proposamenaren aurrean, eta bertaratutako bere partaide guztien aldeko botoekin, Gurutzeko birrurbanizazioa, 4. fasea lanen lehen obra-egiaztatzea onartzea erabakitzen du.



IV.- ORDENANTZA FISKALEN ALDAKETA.-

Ordenantza fiskalak aldatzearen gaiaren inguruan, Ogasun batzordean egindako proposamena aurkeztu da bere onarpenera. Aipatzekoa da tarifak orokorrean kontsumoko prezioen indizearen arabera igoetzea proposatzen dela, hau da, %1,8. Honen salbuespen gisa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren hiri lurren tarifa eta zabor bilketaren tasaren tarifak egongo lirateke. Lehenengoaren kasuan, egoitza ondasunentzat 2017an tipoa jeitsi egin zela kontuan izanda, tipoa 2016 urtean zegoenean jartzea proposatzen da, hau da tipoa milako 1,67580tik 1,86522ra igoetzea. Zabor bilketa tasaren kasuan berriz tarifetan %10eko igoera proposatzen da.

Ogasun batzordeko presidentek esaten du zabor bilketaren kasuan, eta helburua zerbitzuaren autofinantzaketa izanda, hasieran finantzaketa maila %64koa zela eta igoera hau aplikatuta zerbitzu kostuaren %90eko estaldura lortuko dela. Ondasun Higiezinaren Zergaren kasuan esaten du Foru Aldunditik jakinarazi dutenez, katastro balioetan ez dela inolako igoerarik aplikatuko.

Hernandez zinegotziak (EH Bildu) esaten du ez dutela alde bozkatuko eta hau bi arrazoiengatik. Bat, zabor bilketaren %10eko igoeragatik, gehiegi iruditzen zaielako, eta bi, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren igoerarekin ere ez daudelako ados, iaz ere egon ez ziren bezala.

Alkateak esaten du kudeaketari dagokionean eta zehazki zabor bilketari dagokionean, gastua jaitea dela helburuetako bat eta egin ditzaketen proposamenak aztertzea irekita daudela.

Gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 boto (EAJ) eta aurkako 5 botoz (EH Bildu), honako akordioak hartzen ditu:

1. Aurkeztu den proposamenean eta bere espedientearen jasotzen den dokumentazioaren arabera ordenantza fiskalen aldaketa, haserako izaeraz onartzea.
2. Akordioa jendaurreko erakustaldian jartzea hogeita hamar lanegunetako denboraldian.
3. Jendaurrean dagoen denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, akordioa behin betiko bihurtzat joko da akordio espres berri baten beharrik gabe.

V.- TAXIEN HIRI TARIFAK.-

Gipuzkoako Taxisten Elkarteak 2018 urterako hiri-tarifen proposamena bidali du Udal honetara. Hiri-tarifa hauek Goierriko herri guztietarako berdina planteatzen dira.

Hiri-tarifen proposamen hau, Udal Osoko Bilkurak onartzea erabakiko balu behintzat, Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamendura bidali behar da honek onar dezan, eta Goierriko Udaletako espediente guztiak GOIEKIren bidez izapidatu nahi dira.

Proposamenarekin batera auto-taxien ustiaketak dituen gastu eta sarreraren azterketa bidali dute baita ere.

Gaur egun indarrean dauden tarifak jarraian azaltzen direnak dira:



HIRI - TARIFA (2017)					
1 TARIFA * (astegun eta egunezkoa)			2 TARIFA ** (gauezko eta jaiegunetakoa)		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
3,4588	1,0828	20,6819	3,4588	1,7269	32,5052

Guzti hau kontutan izanda, gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratura-ko bere partaideen aldeko botoekin, honako erabaki hauek hartzen ditu:

1.- 2018 urterako auto-taxi garraio zerbitzuetarako hiri-tarifa hauek onartzea:

HIRI - TARIFA (2018)					
1 TARIFA *			2 TARIFA **		
Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua	Bandera jeistea	Egindako kilometroa	Zai egindako ordua
3,5141	1,1001	21,0129	3,5141	1,7546	33,0253

* *Tarifa hau lanegunetan 07:00etatik 22:00etara aplikatuko da*

** *Tarifa hau egun orotan 22:00etatik 7:00etara eta igande eta dagokion autonomi eta toki arautegietan finkatutako jaiegunetan 07:00etatik 22:00etara eta halaber larunbatetan eta abenduaren 24 eta 31n aplikatuko da.*

2.- GOIEKI ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean espediente hau Eusko Jaurlaritzako Merkataritza Departamenduaren aurrean izapidatu dezan.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zazpiak eta hamalau direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

